


ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Martxoak 31 16. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Askok Euskal Herriko bazterrak esagutzeko aprobetxatu ditu opor hauek

Oporretatik bueltan

Dagoeneko gutariko gehienok itzuli gara gure eguneroko lanetara. Asteazken utzi ditugu Aste Santuko oporrak eta orain Abuztu arte itxaron behar dugu, gure eguneroko bizimoduarekin nolabait apurtzeko.

Gero eta arrasatear gehiagok alde egiten du herritik egun hauetan, errepidean egin beharko dituen orduetako inolako beldurrik erakutsi gabe. Arrazoi ugari aurki ditzakegu fenomeno hau azaltzeko orduan, baina bidai-egentziek eskaintzen dizkiguten bidaia erakargarriak izango dugu garrantzitsuenetarikoa bat.

(14. or.)

ORAIN ETA HEMEN

Martxoaren 17an CLPk bere Batzar Orokorra izan zuen
Batzarrak aldaketa asko ekarri zituen; hala nola, indizearen tarteak igotzea eta A. Gorroñogoiaren lehendakartzaren amaiera. Bertan ere Kontseilu Zuzentzaile berria aukeratu zen.

(10. or.)

ELKARRIZKETA

**Elena Kortabarría,
gizarte-laguntzailea**

“Behartsuenen bizimodua hobetzeko ahalegintzen gara”.

(17. or.)

PODIUMA

Pako Carretero

Karateka bikaina, hiru urtetatik hona gimnasio bat zuzentzen du.

(19. or.)

ARTEA

Murala: arte gizarteratua

Gure herrian badago hainbat ormirudi: besteak beste, Roneo edo Fagor Industrialekoa.

(20. or.)

FOTOZAHAR

Aste honetan, Garagartzako auzoan izan genuen arte famatua.

(27. or.)

KLINIKA DENTALA

**Odontologia orokorra. Ortodontzia
(Umeentzat ere bai)**

Iturriotz kalea, 7 bis - behea

Tfnos 79 73 88

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetzeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulantiak	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraloak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	798777
--	--------

31 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Noches de sol".
Novedades (Bergara): "Un pez llamado Wanda" 5; 7,30; 10,15.
- Goardiako farmazia:
Corcuera, Elcano.

1 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Big"
Novedades (Bergara): "Un pez llamado Wanda" 5; 7,30; 10,15.
- Antzerkia: Duodeno taldearen "Voyeur".



Amayan, 10,30etan.

- Goardiako farmazia:
Irizar, Erguin.

2 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Big"
Novedades (Bergara): "Un pez llamado Wanda" 5; 7,30; 10,15.

- Goardiako farmazia:
Amezua, Santamaina.

3 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Big"
Novedades (Bergara): "Un pez llamado Wanda" 7,30etan.
- Goardiako farmazia:
Aurora Ruiz, Maalako Arrabala.

4 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Big"
- Goardiako farmazia:
Morales, S. Andres.

5 ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia:
Ruiz Torre, Erdiko Kalea.

6 OSTEGUNA

- Zine kluba: "Las ultimas noches de Boris Gronchenko"
Woody Allenena.



Amayan, 8,30etan.

- Goardiako farmazia:
Español, Iturriotz.

ERAKUSKETAK

- Juan Chillida: Pintura-erakusketa, Galeria 44ean, Apirilaren 15era arte.
- Esme Gonzalez: Argazki-erakusketa, "Retratos y secuencias", Monterronen. Apirilaren 1etik 7ra, 6etatik 8etara (aste bukaeran 11-1; 6-8).

IRTEERA

- Urigoiti-Gorbea-Barazar: Apirilak 9an, goizeko 7etan Garibaitik. Prezioa: 700 pta (ikasleek 350). Izenemateak: Besaiden.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio

-kontseilua: Jose Felix Diaz
de Tuesta
Harry Zاراia
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karnele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164


Copyright: ARRASATE PRESS

Trada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Demografi erronka

Auskalo, Malthus britaniar eko-
nomilari eta soziologo ospetsuaren
teoria inoiz errealitate bilakatuko ote
den. "Populazioaren birsortzeko
ahalmena haundiagoa da lurak gi-
zonari eskain diezaiokeen janariare-
na baino". Horrela zioen 1798an eta
gure egunetako soziologoak orduko
ohar haiek berraztertzen ari dira,
badaezpada ere.

Dirudenez, Euskal Herrian ez
goaz bide horietatik eta -agian zori-
txarrez- gure biztanlegoaren kopu-
rura murrizten ari da, euskaldunak
gero eta gutxiago garelarik. Euro-
pan, gutxi gora behera, berdina ger-
tatzen ari da. Eta baita Ifar Amerike-
tan ere.

Gauzak zeharo aldatzen dira hi-
rugarren munduari dagozkionean.
Afrika, Hego eta Ertamerika, eta
Ekialde Urruneko zenbait he-
rrialdetan egoera larria jasaten ari
dira. Afrikako estaturik gehienetan
hazkundearen indizea %3,5 da,
hogei urtetatik hogeitertara popu-
lazioa bikoiztu egiten delarik. Gau-
reguneko afrikarrak 600 milioi in-
guru dira, horietako %45ak oraindik
hamabost urte bete ez dituelarik.
Kontinente gaztea, beraz.

Beste fenomeno ikusgarri bat

hiri-erraldoikeriarena da, hots, hi-
riak gero eta haundiago bilakatzen
ari direla. Mundu osoko fenomeno
baldin bada ere, hirugarren mun-
duan askozaz nabariagoa dugu,
indizeek jario geratezina dara-
kustelarik. Mexiko D.F hiriburuak
hogei milioi biztanle ditu; 2000.
urtean hogeitasei milioi izango dira.

Biztanlegoaren hazkundera ez da
infiniteza izango. Aditu guztiek dio-
tenez, joera balaztatzen joango da,
poliki poliki. UNOk iragarri duenez,
munduko biztanlegoa 10.000 mi-
lioitan geratuko da, hau da
gaurregun garenon bikoitza. Eta hori
XXI. mende bukaeran gertatuko
omen da.

Epe luzera, dudarik gabe, gizo-
naren birsorketa justu-justu beha-
rrezkoa izango da, ez gutxiago ezta
gehiagorik ere. Beraz, oreka gorde
ahal izango da, Malthus hainbeste
kezkatzen zuen biztanlego-janari
binomioari dagokionez. Arazoa epe
laburrean datza. Nazioarteko
ekonomi ordena berriaren onerako,
hirugarren munduarekiko harreman-
ak berregituratzen baldin badira,
has gintezke pentsatzen gizadiaren
etorkizun hobe batez, iragarpen
apokaliptikoak ahaztuz.

Josemari Velez de Mendizabal

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2

Erakusketa: Sancho Abarca, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



PEÑACOBA
Auto-Eskola

Zarugalde, 46
Tfnoa: 79 29 93
79 14 01

ARRASATE

Zigarrola blues

Zahartzen ari gara eta horrek ez ei dauka bueltarik. Eguneroko ihardu-nean ez zait horrela iruditzen, baina azken bolada honetan Zigarrolatik zehar pasatzen naizen bakoitzean, sahiesbidea dela eta dabilzan obrek eraginda edo, haurtzaroko irudiak eta oroimenak pilatzen zaizkit, sekula santan berriro ikusiko ez dudan mundukoak bailiran.

Axerikua ostein erretako lehen zigarroak, Ideales horiak txarto ez banabil, Axerikuako zelaian harrapatutako kirkilak, Arrueneko Juliren eskerroneko "mertxi" ozena, Aldekoa baserriko atarian egoten zen Lambretta grisa, Kataideko Bitxorien sagar gozoak eta Olatxo bera, joan egin dira, hondeatzeko makinaren altzairuzko hatzaparrek suntsituta.

Aurretiaz beste batzuk joan ziren, auzoan izan genituen futbol zelaiak esate baterako: S. Lorentzo etxeetan zegoena, Kiroldegikoa eta Roneokoa. Antofñari ere aspalditxo heldu zitzaion ordua, Bidekurtzeri moduan.

Ez litzaidake posible izango nire haurtzarora margotzea izen horien zertzeladarik gabe. Nire lobari berriz, guztiz ezezagunak egiten zaizkio. Behar bada Zigarrola zaharraren blues tristea kantatzeko tenorea izango da, aurrerapenaren izenean, jakina.

J. A. M.

Kaixo!

Badirudi betiko leloa kontatzera natorkizuela oraingoan ere, baina egia esan sutan jartzen naiz nire inguruan ikusten dudanarekin. Galdera ugari planteatu diezazkioket nire buruari baina bada berauen artean bat burutik kendu ezin dudana, zer da euskaldun izatea? Nik betidanik entzun dut eta hala uste ere, euskalduna euskara jakin eta hitz egiten duena dela, aldiz aspaldi honetan, sarriegi, ikusten dut jende asko bere burua euskaldun eta abertzaletzat duena eta

beren ahotan erdara barra barra darabilena, manifestaldi eta mitinetan "gora euskadi euskalduna" inolako erreparorik gabe oihukatzen duena, baina euskara ikasteko inolako aha-lerinik egiten ez duena.

Aparteko aipamena merezi dute, euskara jakin eta haur eta txakurrekin bakarrik erabiltzen dutenek. Euskarak ez al du balio edozein gaiz hitz egiteko?

Dena dela, ez naiz idazki hau egiten hasi inori txakurra botatzeko nire eritzia azaltzeko baizik.

Euskaldun izateak, herri batetako parte izan eta sentitzeaz gain, beste pertsona batzurekin kultura bat amankomunean izateaz gain, euskara jakitea eta erabiltzea esan nahi du. Ez dut uste independentzia, autonomia edo dena delakoak ezertarako balio duenik gure izatearen elementurik garrantzitsuena galtzen uzten baldin badugu, aspalditxo esan bait zuen Xalbadorrek:

Herria da gorputza
Hizkuntza bihotza
bertzetik berextean
bitarik baktaxa
izaite horrendako
segurra hil hotza.

Petra

Zertarako?

Badakit hau ez dela lekurik proposena nire kejak eta nire amorrua adierazteko, eta zuek ez daukazuela errua; baina horrela, behintzat, nire barrenak lasaituko ditut.

Nire kezka zera da: nola bere burua europearrez eta modernoz duen estatu batek bialdu ditzake behartuta urtero milaka gazte soldaduzka egitera, denbora eta, behar bada bizitza ere galtzera? Imagina daiteke anakronismo handiagorik? Zein da sekuestro honen helburua, gazteengan nazka, gorrotoa eta asesinatze gogoia sentiaraztea?

Noiz aldatuko da hau? Noiz emango dizkiote politiko dextentek gaiari duen garrantzia?

Bitartean, hainbat gazte gartzelan usteltzen ari dira. Egin duten delitua: beraien buruekin konsekuente izan.

Mozo bat



gili gili

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

GIROA AROTZAK

Iturrioz 14, ARRASATE



ARRATE IRRATIA, S.A.
FM - 101,5

Goizeko 9etatik
Gaueko 11ak arte
Irratsala denak EUSKARAZ

ARRATE IRRATIA
EUSKAL SINTONIA

ALASA ASEGURUAK

Zeuzertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailatakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Zer deritzozu drogaren aurka burrukatzeko neurri bezala droga legeztatzeari?



Jaione Güezmes
(tabernaria)

Jendeak drogak zer diren eta zein ondorio ekar ditzaketen jakin dezan informazio kanpaina bat egin ondoren, ondo legoke berauek legalizatzea.



Juan Bautista Jimenez
(langabetua)

Pertsonak libre izan behar du nahi duena eta bere gorputzean sartu nahi duena aukeratzeko, arazoa besteak errespetatzea da, inork ez ditzala besteen ekintzen ondorioak jasan eta droga legeztatzea lehen pausoa litzateke, besterik gabe



Iker Etxabe
(langilea)

Ondo ikusten dut. Nik drogaren beharra asumitzen dut.



Aurea
(etxekoandrea)

Ez dut batere ondo ikusten. Drogak eliminatu egin behar dira lehen bait lehen. Gazteria horrela gaizki dabil.



**ARRASATE
KIROLAK**

**Deba garaiko kirol dendarik
garrantzitsuena**

**Kirol bakoitzarentzat,
erantzun egokia!**

KIROLAREN ETORKIZUNA ESKU ONETAN DAGO !!!

“Taz Parisen uranioa datatzeko sistema berriaren bi-tartez egindako frogak zera erakutsi zigun, orain dela urte batzuk D. Jose Migel Barandiaran eta biok Arrasateko Leze Txikin lanean ari ginela aurkitu genuen hezurak, hogeitamar urte inguruko emakume baten beso hezurak, 250.000 urte dituela gutxi gorabehera, berau delarik oraingoz Euskal Herrian Neanderthal garaiko giza aztarnarik zaharrena ”

(Jesus Altuna paleontologoak Euskadi Irratiko “Iturri onetik” irratsaioan)

“ULGOR delako kooperatiba enpresak hainbat milioikada handi pezeta xahutuko omen du ondoko lau urtetan bertako langileak eta euren lan-esparrua euskalduntzeko. Egitasmo sakona burutu nahi omen da hainbat langileri astean 25 ordutako ikastaroa lan-garaian eskainiz ”.

(Eguna aldizkariaren “Begiak zorrotz belarriak tente” sailean)

“Basurtoko ospitaleko anestesista-postuak, Arrasaten dagoen Deba Garaiko ospitaleko pertsonalarekin bete ziren eta beraz, eritetxe hau eta eskualde oso bat zerbitzu kirurgikorik gabe geratu zen... Anestesisten gabezia beste zentru batzuetatik sendagileekin betetzen da orain, hauek, beren egun libreetan edo ohizko lanleku zerbitzua bertan behera utzita, Arrasatera etortzen dira, ohizkoa dena baino hiru aldiz gehiago ordaintzen bait die Administrazioak”.

(Euskadiko Ospitaletako Medikuen Federakundeak, “El Correo Español ” egunkarian)

“Interesgarriena Roche-ren pizkundea izan da. Fagor-en kezkatuak zeuden berriro ere. Ez da komeni ahaztea Arrasateko enpresak daukan ekipoa, Rochekegin lezakeenean dagoela guztiz eta bakarrik oinarrituta, eta urte bete hutsean eman ondoren, irlandarrarena ikusteko zegoen. Col D'Eze delakoan besoak altxa zituen etapako garaile izan zelako, eta hori dexente da hasteko. Delgado-Rocheren arteko lehiarekin, Tour-a zer izan litekeen pentsatzeaz bakarrik, zirrarez dardaran gaude ”

(Tito Irazusta kazetariak “Egin” egunkarian)

Zer dela eta sortu da ULGOREn lanpostu batzu euskalduntzeko asmoa?

Beno, lehenik esan beharra dago 1980an jendearekin harremanak izan behar zituzten lanpostuetan zeuden pertsonak 1985erako euskara jakin behar zutela erabaki zela. Erabaki hau ez zen bete eta 1987an Euskalan kanpainaren barruan firma bilketa bat burutu zen akordio horiek bete ez zirela salatzen. Firma hauek ULGOREko Kontseilu sozialari eta Kontseilu Errektoreari aurkeztu zitzaizkion. Honen ondorioz, euskararen egoeraren inguruko txosten bat egin zen lantegian euskarak zuen egoeraren berri izateko.


Txosten honetan Euskararen egoera nahiko kezagarria zela azaltzen zen, 1980an baino txarragoa eta bestalde postu hauek betetzen dituzten pertsonen %70a gutxi gora behera prest zegoela euskara ikasteko baina era intentsibo batez.

Hau dela eta “plan piloto” bat burutzea pentsatu da, 24 ikasleaz osatua. Ikasle hauek egunean lau orduz arituko dira euskara ikasten eta gehienez 12 hilabetez. Plan honen emaitzak jaso ondoren, agian, beste kanpaina zabalago bati emango diogu hasiera.

Honekin batera sentsibilizazio kanpaina bati emango diogu hasiera, euskaldun zaharrei zuzendua, beren harremanetan euskara erabil dezaten eta euskara ikasten dauden beste hauei lagun diezaizten.

Honekin lotuta esan behar ULGOREn kalera-tzen diren txosten informatiboak elebidunak izan behar dutela erabaki dela.

Mikel Lezamid
ULGOREko formazio komiteko kidea



GABINETE MEDIKOA

Medikuntza
Digestibidea
Endoskopia
Ekografia
Analiak

Ferrerias, 1.
Tfnoa: 79 15 08

Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK

Iturriotz, 15

Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin

KOLTZA

FAGOR SUKALDEEN HORNI-
KETA OSOA - OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892



Udal Plenoak 1989ko Martxoaren 15ean egindako bilkuran honako akordio hau hartu zuen:

— Hogeitamar eguneko epeaz jendeurrera ateratzea Udalak sustaturiko eta Roberto Telleria Arkitekto Jaunak erredaktaturiko A-20 Arean (Musakola) Barne Eraberrikuntzarako Plan Bereziaren Aurrerapena, iradokizunak egin ahal ditzaten eta, hala eritziz gero, planeamendurako beste alternatiba batzu aurkeztu ere bai.

*Arrasate, 1989, Martxoak 20
Alkatea*

Udal Plenoak 1989ko Martxoaren 10ean egindako bilkuran, besteak beste, honako akordio hau hartu zuen:

1.— Haserako onspena ematea Planeamenduko Arau Subsidiarioetako S-14 Sektorearen (Musakola Auzoa) Urbanizatze Proiektuaren 2. Faseari; onspen hori Sektorearen Arau Subsidiarioetako Elementuak Aldatzeko Testuaren eta Plan Partzialaren behin betiko onspenaren baldintzapean gelditzen da, azken honen tramiteak batera egiten ari direlarik.

2.— Proiektu hori hamabost egunetako epeaz jendeurrera ateratzea, erreklamazioak aurkeztu ahal daitezen.

*Arrasate, 1989, Martxoak 20
Alkatea*

Udal Plenoak 1989ko Martxoaren 10ean egindako bilkuran, besteak beste, honako akordio hau hartu zuen:

— Udal Planeamenduaren barruko Arau Subsidiarioetako S-13 Sektorean poligonoak mugatzeko "Eroski Koop.E."ak sustatu duen espedienteari haserako onspena ematea.

— Aipatutako espedientea hamabost egunetako epeaz jendeurrera ateratzea erreklamazioak aurkeztu ahal daitezen.

*Arrasate, 1989, Martxoak 20
Alkatea*



**UN FUTURO
PARA NUESTRO PASADO**

claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas

José M. Sánchez Carrón
"Txepetx"

LIBURUAREN AURKEZPENA

Antolatzailea: Babesleak:

Aurrezki Kutxa Muzizipala Arrasateko Udala

APIRILAK 11, ASTEARTEA

LIBURUAREN MAMIAREN AURKEZPENA

Hizlariak:

Dionisio Amundarain (Maizpide Euskaltegiko Zuzendaria)

Iñaki Larrañaga (SIADKO Taldekoak)

Julen Arejolaleiba (Eskoriatzako Irakasle Eskolako Irakaslea)

APIRILAK 13, OSTEGUNA

EUSKALKIEN ETA EUSKERA BATUAREN ERABILERAREN AURKEZPENA

Hizlariak:

Koldo Zuazo (EHuko Irakaslea: Gasteiz)

APIRILAK 18, ASTEARTEA

ERITZI ETA ESPERIENTZI TRUKAKETA TALDEAN

Hizlariak:

J. A. Irigarai (Idazlea)

Txema Larrea (EHuko Irakaslea)

Juan Carlos Etxegoien (Irakaslea, Komiki-aria)

la-

ria)

Lekua:

ARRASATE. MONTERRON Kultur-Etxean, 7etan.



HILBEHERA

Kafetegia

Uribarri etorbidea
ARRASATE



ARANBURU COTEMAR

garraio agentzia

Zaldispe, 3 Tfnoak 79 52 34 / 79 53 99

Mondragonesa Grafikagintza

paperdenda - mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa 79 12 63

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67



Elektronika artikuluen salmenta

J.Carlos Guerra 1, Tfnoa 79 91 64

ARRASATE PRESS

Zure publizitatea egiteko lekurik egoki eta merkeena herrian

laburrak

✓ Txalaparta ikastaroa

Txalaparta ikastaroa astebetez atzeratu da. Beraz, Apirilaren leian barik, 8an hasiko da Txikitxu Dantzaren taldearen lokalean, goizeko 9etan.

✓ Taj Mahal

Duela sei urte izen berberarekin plazaratu zen aldizkariaren asmoarekin jarraituz, Institutoko ikasleek aldizkari bat atera dute. 56 orrialde-tan poesiak, gurasoei kritika, ikasleentzako arteko mezuak, inkesta, etab. biltzen dira. Esan behar sailik bitxiena inkestarena dela. Ikasle eta irakasleei zuzenduta dago eta honako galdera hauek daude: Ze irakasle eramango zenuke ohera?; Zein da, zure eritziz, ikaslerik erakargarriena? Artikulu gehienak erderaz daude, eta itxura aldetik aldizkaria nahiko eskasa da. Dena dela, txalagarria.

✓ Liburutegiak auzoetan

Aurtengo aurrekontuan auzoetan liburutegiak egiteko bi milioi t'erdiko diru-saila dago. Asmo honen helburua txikia bihurtzen ari den Monterroneko liburutegia deszentralizatzea litzateke; eta bost liburutegi egiteko asmoa dago.

✓ Aretxagazeta kalean

Astebukaeran Aretxagazeta lehengo alea kaleratu zen. Aldizkaria informazio orokorrekoa da, eta Udalaren laguntzarekin, Andarito Kolektiboak biltzen dituen taldeak proiektuaren atzean dabilta. Lehen ale hau 22 afizionatuen lanari esker plazaratu da, hauen artean kazetaritza ikasle batzuk daudelarik. Zorionak "Arrasate Press" egiten dugun guztion partetik.

T x a n d a k a

Kanpotar baten zertzeladak

Sarritan, topikoz bete izan ohi da kanpotar batek (hernaniarra zehatz esateko), berea ez duen jaioterriari buruz eman dezakeen eritzia. Eta hori horrela izanik, kasu honetan bederen, salbuespen bat egin nahi nuke, Arrasate Press-eko arduradunen gonbitea lekuko, ARRASATE lan-herri honekiko daukadan ikuspegia eskaini asmoz.

Gaia sartuz, esan dezadan, XX. mendearen azken hamarkadako herri teknologizatu baten akatsak eta abantaila guztiak ikusten dizkiodala Arrasate honi.

Nolabait, Kooperatibagintza industrialaren seaska izateagatik da ezaguna, lau haizetara, mondragoeiko izena, nahiz eta uste dudana hori baino zerbait gehiago ere badela Leintz bailarako hiriburu lanbrotsu hau.

Geografikoki, mendarteko haran hertsu batean kokatzen da. Udalaitzek, begi zorrotzez zaintzeaz gain, eguneroko haize freskoa bidaltzen digu, eta inguruko edozein mendi gailurretatik ikus daitezke hiri urbanoaren eta nekazaritza giroko lurraldeen arteko kontraste bitxiak. Lantegi ugari, eta jendez betetako auzoekin lehiatu nahirik edo, bizirik diraute, oraindik ere, antzinako hainbat usadio zahar. Noiz arte, ordea? Badirudi, kale-bizitza eta asfaltoko giza-ereduarena nagusituz doazen ukazinezko fenomenoak direla Arrasaten ere.

Bertako herritarron izakeraz juzku bat egiterakoan tentuz ibili behar bada ere, ausartuko



Edorta Uria*

nintzateke zertxobait esatera. Agian, eritzi subjektiboa da, baina kooperatibagintzak ere duen haziak, oro har, biztanlegoaren zati on baten pentsamoldea markatu dueneko inpresioa daukat. Fenomenoa hortxe dago, oraindik ere aztergai, eta emai-

tzak bistakoak eta neur daitezkeenak. Dena dela, ez dira arrasatear guztiak ur horietatik edaten dutenak, eta, zalantzarik gabe, beste kultur iturrien balioa eta eragina nabarmentzen da herria gorpuzten duten bestelako pentsakeraz osatutako sektoreetan.

Sozialki, urrats berri bezain emankor asko eman ditu Arrasateko herriak azken urteotan. Udaltxearen ekimenez, gehien bat, eta finantziario-iturri zabalagoak bideratu ahal direlako, proiektu interesgarriak gauzatu dira arrasatear guztion probetxurako. Nahiz eta, oraindik ere erronka moduko arazo ugari konponbidean jartzeko premiarik egon badagoen: etxe bizitzaren arazoa, langabezia, trafikoa, gazteen etorkizuna, osasuna, ingurugiroa, kulturgintza, Euskararentzako irtenbideak, etab. Hitz batean esateko, herri honek ez dauka lozorroan geratzerik.

Ah!, eta ahazturik neukan komunikazioen arazo korapilotsua. Isolatuegia ikusten dut Arrasate kanpo-harremankiko, ea bada "Y" greko ospetsu horrek oraingo trasiego neketsua erretzen duen.

(*) LKAren Euskara-Zerbitzukoa

BENGOA

ERAIKUNTZAK ETA BERRIZTAPENAK

Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

CLP: Euskadiko kutxen liderra 88an

Martxoaren 17an, LKak 1988ko ekitaldian izandako emaitzen berri emateko prentsaurrekoa eskaini zuten. Arratsalde, oster, Batzar Orokorra izan zen Amaia zinematokian, hainbat aldaketa ekarriko zuen Batzar Orokorra, hain zuzen.

1988ko ekitaldia

Jose Ignacio Mora prentsa arduradunaren laguntzarekin, Xabier Irastortza eta Iñaki Gorroño CLPko zuzendari eta zuzendariorde orokorrek, azken urtealdiaren emaitzen berri (ikus azpiko taulan) eman zuten. Aipatzekotan, zerga aurretiko mozkinak seinalatuko genituzke, 5.195 milioikoak hain zuzen, 87ko ekitaldia %20,65ean gaindituz. Irabazi hauei esker eta mozkinen dagokienez, Lan Kide Aurrezkia bere 186 sukurtsalekin Euskal Herriko Aurrezki Kutxen arteko lider bihurtu da 88an.

Kooperatiba Elkartuek, bestalde, 888 lanpostu berri sortu dituzte 1988an, Taldearen langile-multzoa 21.297ra igoz. Hala eta guztiz, Talde Elkartuari zuzendutako finantziaketa murriztuz joan da, hain zuzen ere azken urteotan lortutako emaitza onen ondorioz.

Irastortzaren hitzetan, Aurrezki Kutxen arteko bateratze prozesuak "ez gaitu gehiegi kezkatzen, eragin-kortasuna ez bait dago tamainaren arabera". 1993aren aurrean, "Ekonomi Elkartean sartzeak zen-

bait eragozpen ekarriko baditu ere, Talde Elkartua ondo kokatuta dago, bere produktuek duintasunez lehia dezakete eta, merkatu berrian".

Batzar Orokorra

Punturik eztabaidatsuen a, agian, Sozietatearen Estatuaren 25. artikulua aldaketa zen, hau da, lansari tar-tearena. Tarte hori batetik hirura bitartean jarrita zegoen eta proposamen berriak batetik seira aldatu nahi zuten. Eritziak ez zetozen bat puntu honetan eta azkenean bigarrena nagusitu zen, oso tarte urriagatik baina.

Kontseilu zuzentzailea berrizteko orduan gauzarik aipagarriena Alfonso Gorroñoagotiaren (ikus izen propioak) kargu uztea dateke. Aretokoen txalorik beroenak eman zion amaiera haren 28. urteari lehendakaritzan. Ondoren, Kontseilu Zuzentzaile berriaren aukeraketa etorri zen



Irdiriza batetik seira aldatzea erabaki zen

Kontseilu Zuzentzaile berria

Lehendakaria: J. M^a Otaegi (Fagor).
Lehendakariordea: J. Maiztegi (Urcoa).

Idazkaria: C. Ugarte (CLP).
Kontseilukideak: B. Amundarain (CLP).

A. Etxebarria (Debako).

J. Goienetxe (Orbide).

L. Jorquera (CLP).

C. Lopez (CLP).

J. Mongelos (Fagor).

J. L. Olasolo (Learko)

J. M^a Ormaetxea (CLP).

I. Otano (Goilan)

URTEALDIAREN DATURIK GARRANTZITSUENAK

	1988	1987	Miloi pta.tan
LAN KIDE AURREZKIA			
BALIABIDE PROPIOAK			
(soberakinak bainatu ondoren)	24.182	20.366	18,7%
HARTZEKODUNEN BALIABIDEAK	228.628	197.112	16,0%
KREDITU-INBERTSIOA	138.221	116.738	18,4%
ZERGA AURRETIKO MOZKINA	5.195	4.306	20,6%
KOOPERATIBA-TALDE ELKARTUA			
SALMENTA GUZTIRA	204.996	180.765	13,4%
ESPORTAZIOAK	40.973	35.660	14,9%
INBERTSIOAK	14.629	13.704	6,7%
TALDEAREN PLANTILA GUZTIRA	21.297	20.409	4,4%



VIGURI BIDEO KLUB

Apirilean gure bideo klubeko bazkide eginez gero,
HIRU PELIKULA DOHAIN ikusi ahal izango duzu bai eta
KOLORETAKO LAUTELEBISTAREN ZOZKETAN
parte hartu ere

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA
TELEBISTA BAT ESKURATZEKO

AUKERA IZANGO DUZU

VIGURI, gertuago zeure zerbitzura.

Iturriotz, 33

Zerkaosteta, 24

Tfnoa: 79 85 65

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A.ZANGITU

Tfnoa: 799182 ARRASATE

Tfnoa: 761954 BERGARA

berango

Arotzeria orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atek

Legarreko pabiloi industrialak
(Behea) Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE



Etxebizitzaren tipologia aldatu behar da

Etxebizitza eta gazteria

Izenburu honekin, eta Gazteria Batzordeak antolatuta, hilaren 21ean mahaingurua izan zen Monterronen. Gai interesgarria tratatu arren, jende gutxi bildu zuen oraingo honetan debategak.

Jose Mari Usatorrek zabaldu zuen hizlarien txanda. Arrasaten 700-800 etxebizitza hutsik daude, osoaren %9a. Espekulazioa, bestalde, gure herrian beste leku batzutan baino beranduago etorri da. Entzule-

goaren galdereei erantzunez, onartu zuen etxebizitzaren arazoari irtenbidea emateko Udalak ez duela ezer gutxi egin. Esaterako, Iñarra Pasealekuan promozio publikoko 24 etxebizitza eraikitzen ari dira; baina, Arrasaten lur gutxi dago, eta dagoena esku pribatuetan, espropiatzeko oso zaila dena.

Usatorreren ondoren, Gasteizko Udaleko teknikaria den Ana Agirre mintzo zen. Hiri honetako Udalak, 3.000 inkesta aztertu ondoren, lurralde batzuk utziko dizkio dohainik Jaurlaritzari, honek etxebizitzak finanzia ditzan.

Azkenik, Barakaldoko Udaleko Gonzalo Centenoren txanda heldu zen. Honen eritziz, etxebizitzaren arzoa kulturala da; etxebizitza familiarrez gain, beste motarik ez baita eraikitzen. Gazteentzako etxebizitza txikiagoak edo behin behineko taldeko etxebizitzak, esaterako, hemen eraikitzen ez diren bitartean, arazoa ez da konponduko.

laburrak

✓ Lur azpiko aparkalekuak eraikitzeko negoziaketak

Lur azpiko aparkalekuak egiteko arautuko dituzten neurriak erabakitzeko, jarraitzen dute Udalaren eta Cordoba y Oro eta Obenerrekako auzokideen arteko negoziaketak.

Konkurtsoen deialdia atzeratu egin da hil honetako pleno arte. Bi dira auzokide eta Udalaren arteko eztabaidaren puntuak: alde batetik, plazen kontzesioaren sistema. Udala 50 urtetako kontzesioaren aldekoa agertzen den bitartean, auzokideek betirako izan dadin nahi dute. Bestetik, Udalak plaza irekiak ezarri nahi ditu; eta auzokideek, berriz, plaza itxiak. Dena dela, bitarteko akordio batetara heltzea espero da.

Aparkaleku plaza bakoitzak 850.000 pta inguru balioko du.


✓ Bergarako monografia historikoa

Herri honetako Udalak eta UNEDek sinatu dute akordioaren arabera, honek Bergarako historia, geografia eta etnografiaren monografia bat egingo du. Lana 1991ko amaierako bukatuta egotea espero da, proiektuak 12 milioiko aurrekontua duelarik. Monografian, besteak beste, Bergarako Historiaurrea, Ilustrazioa, eta Arte eta monumentoak bezalako gaiak tratatuko dira. Lana UNEDeko irakaslea den Vicente Huicik koordinatuko du.

Agarreko garaixea

Dakizuenez "garaixea" lau edo gehiago zutoinetan eusten den aletgia da. Bergaran badago bat, Agerrekoa guztiz eraberritua izan dena.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultur Departamentuak babestuta, Agerreko garaixearen berri zehatza ematen duen liburua argitaratu berri da. "Agerreko garaixea - Horreo de Agerre" I. Azpiazu, J. Arregi eta F. de Leizaolak idatzia. Paregabeko aukera gure bailaran dugun bitxi hau hobeto ezagutzeko.



Liburu eder honen azala

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai, 9 Tfnoa:798997

Txapelketa gastronomikoa

Asteartean, Diario Vasco antolatutako Gipuzkoako Elkartearen arteko Txapelketa barruan, SUDC delakoari tokatu zitzaion txanda. Jesus Moreno (Udalpekoa) eta Victoriano Agirre (Egipte eta Alkartukoa), Arrasateko elkarte guztiak ordezkatzuz, "rape-entsalada", "legatza saltsa berdean", "solomotxo onddoen kremaz" eta SUDC delako postrea (errege-sagarraz eginiko purea) prestatu zuten.

Rafael G^a Santosek (DVkoa), Mikel Corcuerak (Irungo "Ilarramendi"koa), Koldo Lasak (Bergarako "Lasa"koa) eta Jose Juan Castillog (Donostiako "Nikolasakoa"), Juan Jose Etxabek eta Antxon Perez Callejak osatutako epaimahaiak horrela puntuatu zituzten platerak: entsalada: 5 puntu; solomotxo: 7,5 puntu; legatza: 8 puntu

eta postrea: 10 puntu.

Txapelketa Alkartu elkartearen egin zen, eta "Antena 3" emandegiak zuzenean igorri zuten. Programan Esteban Etxabe ere elkarrizketatu zuten, honek arbigarak prestatzeko sekretu guztiak entzuleei kontatu zielarik.

Txapelketan 18 elkartek hartzen dute parte eta Apirilaren amaieran bukatuko da. Sukaldariei beharrezko plater bat, legatza saltsa berdean, hain zuzen, eta hiru libre eskatzen zaizkie. Finalera bost elkarte helduko dira, sari mota ugari dagoelarik: platerik imaginatiboena, olio z eginiko saltsarik onena, legatzarik onena,



Antena 3ekoek protagonistak elkarrizketatu zituzten

mahairik onena, etab.

G^a Santosen esanetan, "txapelketaren helburua ohizko euskal sukaldaritzaren platerik onena, legatza saltsa berdean, hain zuzen, ezagutaraztea eta sukaldaritza eboluziozkoa promozionatzea da. Bide batez, elkartearen giroa irratitik hartu nahi dugu".

JAIOTZAK

Pavón García Xabier, Martxoak 3
Sánchez Garai Nerea, Martxoak 13
Zagan Sagasta María, Martxoak 14
Goiria Egidazu Sara, Martxoak 17
Merino Blanco Jorge, Martxoak 19
Barrena Altube Ane, Martxoak 20
Montero Elorra Daniel, Martxoak 20

Crespo Larrea Jon, Martxoak 21
Mendez Castro Sheila, Martxoak 22
Iribar Egaña Asier, Martxoak 23
Agredas Pando Jone, Martxoak 24
Miguel Aldekoa Igor, Martxoak 25
Landaburu Lamariano Jon, Martxoak 25
Agirre Gómez Ane, Martxiak 27
Osinaga Balzategi Antton, Martxoak 28

EZKONTZAK

Elizan

Abelardo Tena & M^a Josefa Barquero, Martxoak 18.
Emilio Martín & M^a Carmen Martín, Martxoak 19.



Autodeterminazioa, nagusitu zen lema

"Bidez Bide"

1.500bat lagunek osatu zuten Arrasateetik zeharkatu zuen autodeterminazioaren aldeko martxaren kolumna. Martxa Musakolatik sartu zen, eta Perez de Arenazaren hiketa-ren V. urtemuga betetzen zela eta,

martxistak kanposantura abiatu ziren lorosorta eskeintzera. Sebero Altuben Txiron, Doris Benegas eta Takolo hizlariekin mitina izan zen. Martxistek Kiroldegian afaldu zuten, eta gero Rock jaialdia izan zen bertan. Ekintza guztiak giro alai burutu ziren.

Maiatz

ILEAPAINDEGIA
mixtoa

Elkano, 38 (Musakola)
Tfnoa: 79 58 78
ARRASATE

MARTINEZ aroztegia

Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak

Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41


LARRINGAN

auto gidarien eskola
KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

Ostiralean Maritxu esnatzera-koan bere Kajoiko kristala puskatuta zegoela konturatu zen. Ez daki-gu zer pasatuko ote zen, baina izan dugun eguraldiarekin, oker ez gabiltz haizearen ekintza ez dela izan pentsatzerakoan. Dena dela, bere zaindariak aguro jabetu ziren desastreaz, eta eskilara eta beharrezko traste guztiak behin prestatuta, aguro konpondu zuten aberia, hurrengo Urriaren 6an berriro disdiratsua ager dadin.

Orain berriz kanta dioiezakegu, "Maritxu nora zoaz, eder galant hori..."



Txispas ustekabeen harrapatu genuen

Lancaster-Arrasate:

Arrasateko Hizkuntz Eskolak ekarrita, zazpi ikasle britainiar izan ditugu Mondragoen, beste horrenbeste familiatan zortzi egunez gaztelania ikasten eta lantzen. Hamar urte badira AHIZKE horrelako eskol-elkartrukeekin hasi zela, ingeles eta, ikasten ari diren ikasleei ekainean 87 ikasle mondragotar joango dira Ingalaterrara- bertan praktikatzeko aukera eman asmoz. Argazkikoak Lancaster hiri-koak ditugu.



Asko gustatu zitzaizen Arrasateko giroa

Oraingo honetan Oñatiraino joan gara ezkonberriei bila, gure kuriositateak mugarik ez bait dauka. Lurdes Agiriano eta Inazio Agirre zibilez ezkondu ziren Oñatiko Udalean Martxoaren 18an. Negua behin pasatuta, badirudi heldu zai-gula berriz ezkontzeko garaia. Kottilleozaleok, trankil egon, informatu-ko dizuegu eta.

PEDRO LUIS



izen propioak

Xabier Zubizarreta, 44, Arrasateko alkatea. Azken plenoan erabaki zenez, Apirilaren 15etik aurrera alkateak dedikazio osoz egingo du lan udaletxean. Orain arte Xabierrek Aurki kooperatiban egin du lan. Magisteritza du eginda, eta hau da bere bigarren urtea Mondragoeko Alkatetzan. Aurretiaz HBko zinegotzia izan zen lau urtez.

Alfonso Gorroñogoitia, 64, azken Batzar Orokorrean utzi egin zuen Lan Kide Aurrezkiaren Kontseilu Zuzentzaileko lehendakaritza. Alfonso kooperatibetako sortzaile-tariko bat dugu. Ingeniaritza industrialia egin ondoren, 1960an CLPko aipatu Kontseiluko lehendakari hautatu zuten. 28 urtez izan da, beraz, lehendakari, 38 Batzar Orokorretan buru izan delarik. Datorren Azaroan jubilatuko da.

Maria Dapena, 10, S. Frantzisko Xabier ikastolako ikasle arrasatearra. ONCEk antolatutako itsuei buruzko idazlan-lehiaketan, Gipuzkoako bigarren saria irabazi du, 10.000 pezetarekin batera, OHoko 5. mailako bere gelakideentzat ere kasete bana lortuz.

Aitor Zabaleta, 25, auto-gidari bergararrak aurtengo denboraldian 330 zalditako Lola BMW gidatuko du. Euskadiko ia igoera guztietan parte hartzeko asmotan dabil. Apirilaren 30ean Espainiako txapelketara joango da eta baita Europakora ere, Maiatzaren 21ean Lisboan eta Abuztuaren 6an Mont Dor-en, Frantzian.

HIRE

Liburu eta oparidenda
iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

Elkadura orekatua:
Lodiazuna, kolesterol, diabete,
hipertentsio, etab. en tratamendua

L. Barrenetxea dra.

Mediku-nutrizionista
Gantzi, Tfnoa 240 106

ERAÑA
AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzeziño kalea 4 - behea
Tfnoa: 79 83 95 **ARRASATE**

Heldu bezain pronto alde egin digute oporrek

Dagoeneko joan zaizkigu Aste Santutako oporrak, jadanik itzuli gara gure eguneroko zereginetara eta gehienok Abuztu arte itxaron beharko dugu berriro oporrak izateko. Opor hauek, luzeak ez izan arren, jende askok aprobetxatzen ditu norabait alde egiteko, egun hauek bait dira hilabetetan izango dugun aukera bakarria bidaiaren bat egin ahal izateko.



Aurten arrasatear askok mendira joatea erabaki du

Ohitura ez hain zaharra

Aste Santua berez, festa erlijioso dugu eta orain urte gutxi arte jendeak, festa hauek, mezetara joanez eta barau eginez ospatzen ziotuen. Gutariko gehienok gogoratuko dugu Arrasaten izaten zen prozesioa eta festa hauetan zehar haurrak horrenbeste bildurtzen zituzten "katxo borratxoak" ikusteko izaten genuen aukera. Orain aldiz, jende askok festa hauek ospatzeko beste era bat aukeratu du, eta Aste Santua noiz etorriko zain egoten da, kanpora alde egin ahal izateko. Dena den, opor hauetan alde egiteko prest dagoen jendea gaztea dela esango dugu, 40 urtetik beherakoak normalean eta berauen artean ikasle eta irakasleak nabarmenduko dira berauek bait dira oporraldi luzeenak izaten dituztenak.

Lau edo bost egunetarako kanpora alde egiteko ohitura honetan faktore askok eragiten duela esan genezake eta berauen artean bidaia agentzien garapena funtsezkoa dela esango dugu. Bidai agentziek beraien artean duten lehiaren ondorioz, bidaia merke eta ugariren artean

jendearen maila ekonomikoaren hobetzeak ere eragin handia duela esango dugu, lehen gutxi batzuren pribigio zena gaur egun lan egiten duen edozeinek disfruta dezakeen plazer bilakatu delarik.

Arrasatearren joerak

Oporretan, alde egiten dugunean, oso arrunta izan ohi da herritarren batekin topo egitea, herriko bidaia agentzietan egon ondoren, hau hain arraroa ere ez dela konturatu gara, Arrasatearren joerak nahiko berdintsuak bait dira.

Aste Santutan, jendeak ez du oso urrutira joateko joerarik, kontutan izanik egun gutxi direla eta jendea ez dagoela prest joan-etorrietan denbora galtzeko.

Oro har bi multzo egin ditzakegu, inguruan geratzea erabaki dutenak, Nafarroa eta Asturias izanik nagusiki talde hau osatzen duten arrasatearrek opor hauek igarotzeko aukeratu dituzten lekuak. Egun hauek Aralarren pasa dituen gazte talde batekin egon gara eta honako hau azaldu digute: "gu ikasten ari garenez gurasoei kendu behar diegu oporretan joateko behar dugun dirua eta jakina ezin diegu diru gehiegirik eskatu, hori izan da

Gero eta arrasatear gehiagok alde egiten du herritik Aste Santua heltzen denean opor labur hauez disfrutatzeke asmoz

aukeratu ahal izango dugu, askotan benetako gangak ere aurki ditzakegularik. Arrasaten dauden bidaia agentzietara jo dugu eta 15000 eta 40000 pta. bitarteko bidaiak aurkitu ditugu.

Jendearen alde egiteko joera honetan garraioen hobetzeak eta

Aralarrera joatera bultzatu gaituen arrazoi bat eta bestalde oso ondo pasatzen dugu mendianç umore ona baldin baduzu ez dago urrutira joan beharrik".

Inguru hauetara joatea erabakitzen duen jendeak, normalean bere kabuz egiten du bidaia eta ez ditu

bidaiak ajentzia baten zerbitzuak eskatzen, kontutan izanik jende gaztea izaten dela normalean eta ez duela erosotasun handirik eskatzen beren oporraldiak nonbait pasatzeko orduan.

Urrutirago joatea pentsatu duen jendearen joerak ere, nahiko berdintsuak ditugu, gazte eta helduagoen joerak desberdinak izanik. Gazteek Paris, Londres eta Marruecos aukeratu izan dute orohar beren oporraldiak igarotzeko. Leku hauek aukeratzeko orduan denen arrazoiak nahiko antzekoak dira. Marruecos aukeratu dutenek herri hau merkea izan eta gertu egoteaz gain, gurearen oso desberdina den kultura bat ezagutzeko aukera ematen duela izan dute kontutan eta Parisera joan direnek, aurten, herriko bidaiak agentziek bertara joateko oso bidaiak erakargarriak eta Parisek betidanik izan duen xarma izan dute arrazoi nagusizat bertara joatea erabakitzeke orduan

Hogeitamar eta berrogei urte inguru duten pertsonak, aldiz, Espainia

txarra egitea ez da hemen bezain normala urtetan zehar. Bertara joateko ohitura izatean dagoeneko lagun taldea ere bertan egina dugu eta beraiekin egoteko

egun hauetan.

Aste Santutako oporraldiak oso laburrak direnez, jendeak oso antolatuta dauden bidaiak nahi izaten ditu, garraioa, mantenua eta



Oporraldia igarotzeko Mediterraneo aldea leku aproposa omen da

aprobetxatzen ditugu egun hauek”.

Beraz, arrasatearrek beren oporraldiak igarotzeko orduan

aloramendua, dena konponduta dituzten bidaiak alegia, era honetan ez bait dute gauza horietaz arduratzen denborarik galduko.

Azkenik esan behar opor hauek jende askok eskiatzera joateko aprobetxatzen dituela, baina aurten eguraldia zoro samar dabilkigunez, askok eta askok gogoarekin geratu behar izan du eta elurretan belztu beharrean eguzkitan belztu behar izan du, nahiz eta aipatzekoa den gero eta arrasatear gehiagok duela eskiatzera joateko joera, salneurriak merketu direnaren ondorioz. Dena den esan behar da, eskiatzera arrasatear gazteak joaten direla, golpeak hartzeko orduan beldur gutxiago azaltzen dutelako agian.

Opor hauetan jendeak ez du nahi izaten urrutiegira joatea egun gutxi idirenez bidaietan denborarik ez galtzeko

aldea nahiago izan dute, beren oporraldietako egunak igarotzeko lekua aukeratzeko orduan, Salou eta Benidorm izanik arrasatear hauek nahiago izan dituzten herriak. Mila eta Joxe ere bertan egon dira: *“gu ia urtero joaten gara bertara, eguraldia nahiko ona izaten da edo behintzat eguraldi*

nahiko gusto antzekoak dituztela adierazi behar. Bidaiak agentziakoek adierazi digutenez, azken urteetan ez dira aldatu jendeak beren oporrak igarotzeko aukeratzeko dituen lekuak, baina guztiek nabarmendu digute, urtetik urtera jende gehiagok alde egiten duela



**BELUN
TABERNA**

Lagunarte bikaina

Garagartza Auzoa, z/g Tfnoa: 796114

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



BIDEOAK EUSKARAZ



Gizarte-Laguntzailea: Bizimodu-kalitatea hobetzeko ahaleginetan

Herri batetako biztanlegoari arazo ugari sor dakiok bere bizitzaren egunerokotasunean. Arazo hauei, nolabaiteko irtenbidea ematen Udala- ren Ongizate Zerbitzua saiatzen da. Zerbitzu horretan lan egiten duen Elena Kortabarría gizarte laguntzailearekin egon nahi izan dugu, bertatik jendeari luzatzen zaizkien laguntzaz eta eskaini beharko litzaizkio- keenaz hitz egin asmoz.

— Arrasate Press: Zer motatako zerbitzuak eskaintzen dizkiezue herriarrei Ongizate Zerbitzuan?

— Elena Kortabarría. Teorikoki hiru motatako laguntza edo zerbitzuak eskaini beharko genituzke, talde, elkarte eta nor banakoei zuzendutako laguntzak, alegia. Gaur egun nor banakoei baino ez diegu nolabait laguntzen, normalean hirugarren adinekoei edo ezinduei, gure aurrekontuak eta dauzkagun giza baliabideak kontutan izanik, ezer gutxi gehiago egin bait dezakegu.

— Zeintzu dira zehazki pertsona horiei luzatzen dizkiezuen zerbitzuak?

— Normalean eskaera batzu jaso —mota askotakoak izan daitezke, pentsio tramitazioak, elbarritu tramiteak, laguntza bereziak etab— eta berauei irtenbidea ematen saiatzen gara. Eskaera hauei irtenbidea emateko herrian bertan edo beste erakunde batzutan, Eusko Jaurlaritzan edo Diputazioan izan ditzakegu errekurtsuak.

Nor banakoei zuzentzen zaien zerbitzuan etxez-etxe laguntza dugu. Laguntza hau familiarik edo gertuko ahaidetik ez izateaz gain asistentzia beharra duten pertsona heldu, ezindu edo arazoak dituzten pertsonen ematen zaie.

— Maila hori ez duten pertsonen ez al dute inolako laguntzari jasotzen?

— Hain zuzen ere, aurreko urtean honi atxiki gatazka eta horretarako Udalak gizarte laguntzaile bat kontratatu du. Jaso ditugun eskaera batzu direla eta, konturatu gara nolabaiteko akats fisikoa, sensorial edo psikikoa duten pertsona talde bat badagoela, baina legeak eskatzen duen %33 hori ez duena. Muga hori gainditzen duenak prestazio batzu jaso ditzake, aldiz beste hauek, %33

horretara heltzen ez diren hauek, ez dute inolako laguntzarik. Pertsona talde honek lan merkatuan sartzeko ez du inolako aukerarik. Une honetan Arrasateko minusbaliduen zentzua egiten ari gara, errekonozituta daudenak zein egoeratan dauden jakiteko, eta bestalde beste talde hau zenbat pertsonen osatzen duten jakiten saiatuko gara.

— Ezinduez gain, ba al zabilzate beste giza talderen batekin lanean?


— Beno ba drogomenpetasunaren arazoa duten pertsonekin lanean asteko asmoa dugu. Komisio bat sortu nahi dugu, gaiarekin zer ikusia duten pertsonak bilduko dituen komisioa, toxikomano ohiak, arazoa duten pertsonen guraso edo ahaideak eta, laguntzeko prest baleude, toxikomanoak ere bai.

Guk eskoletan prebentzio lanean aritu nahi dugu, ideala prebentzio eta asistentzia lanak egitea litzaiteke, baina asistentzia mailan Udalak ezer gutxi

egin dezake, horretarako beste profesional batzuren beharra bait dago.

— Zer ulertzen duzue toxikomanotzat?

Toxikomanoen hitz egiten dugunean alkoholikoen eta drogadiktoren hitz egiten ari gara. Alkoolikoak ere toxikomanoak direla oso argi daukagu eta ziuraski maila honetan izango dugu lanik haundiena. Arrasaten datu zehatzik ez badugu ere, droga gogorren arazoa nahiko larria dela uste dugu, baina zalantzarik gabe alkoolarena larriagoa da. Komisio horretan parte hartzea gonbidatuko den talde bat alkooliko anonimoena izango da.



Elena Kortabarría, Gizarte Laguntzailea

— Bestalde ikutu gabe duzun talderen batekin beharrak dituela ikusten al duzue?

— Bai adingabe eta emakumearen arazoak hor ditugu.

Inoiz, eskolaren batekin hitz egin dugulako edo juzgadutik haurren baten inguruko txostenen bat eskatu izan digutelako, arazoak dituen adingabe kopuru garrantzitsu bat egon daitekeela susmatzen dugu. Normalean, kasu hauek ez dira izaten haurren arazoak, arazoak dituen familia batetan integraturik egotean, arazo hauek haurrengan eragiten duten arazoak baizik. Gai hau dela eta arduratzen hasi gara, juzgadutik informeak jasotzen ari bait gara delituak egin dituzten haurrenak, eta uste dugu nahiko zabala izan daitekeen arazoak dituzten haur talde bat badagoela herrian.

Emakumearena ikutzeke dagoen beste gai bat dugu. Konsientea naiz familia plangintzarako zentru baten beharraz. Beste korporazioari Arrasateko Emakumeen Asanbladak proposamen bat luzatu zion, baina

Arazoak dituzten adingabeen kopurua handia dela sumatzen dugu

aurreko korporazioak gaiak ez zuen ezer jakin nahi. Lau urtetarako egin zen planean Zentrua aurrikusten zen, baina oraindik ez da ezer egin.

Teorian Udaleko Gizarte Laguntzaileak departamendu ezberdinekin koordinatu beharko luke, gazteria, kultura etab batzordeekin, azken finean ongizatea dena bait da.



Errealeko hintzen ordezkaria Mikeleri saria ematen



Jokalarien jarrera bikaina izan zen

Hau arrakasta!

Bere historia laburrean Martxoaren 19an Atxabalpeko zelairako egun berezia izan zen. Denon pozarako, eguzkia nagusitu zen goizetik arratseraino, eta zelai eder honen alfonbra inoiz baino berdeagoa agertu zen. Egia esateko, partidua aspergarri samar suertatu zen, baina hori ez zen inportanteena, eta han 5.000 lagun bildu gintuen jaiak sekulako arrakasta izan zuen Kontuak egite-rakoan ere, aurrikuste guztiak lurretik botata gelditu dira, zifrak datorren astean eza-gutaraziko direlarik.

1988: Arrasate Atletiko Taldearen urterik onena

Ostiralean, hilaren 24ean, Arrasateko Atletiko Taldeak urtearen Bilera Orokorra izan zuen. Bertan iazko balantzea egin zen eta, zalan-tzarik gabe esan daiteke 1987-88ko denboraldia Arrasateko Atletismo Taldeak inoiz izan duen onena izan dela. Baieztape hau egiaztatzeko hona hemen datu batzuk:


— Arrasateko 18 record gaintitu dira.

— Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketatan taldeka irabaztea eta Komunitatezko eta Gipuzkoako go-rengo kategorietara igotzea lortu da.

— 19 domina eskuratu dira Gipuzkoako eta Euskadiko txapelkete-tan: urrezko 5, zilarrezko 7 eta bron-zeko 6 domina.

— Estatuko txapelketetan parte hartu ahal izateko 9 marka minimo lortu dira.

Ekonomikoki ere lortu da "Arrasate Kirolak" en sponsoraren lagun-tzaz, pixkat hobeto ibiltzea.



Hau
zer den
jakitea nahi
ba duzu
etor zaitez
gurera



Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09 ARRASATE

BRANKA JATETXEA

Eguneko menua
eta karta

Zarugalde 1, Tfnoa 79 60 10

TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea, 8
ARRASATE

OSTARKU DANTZALEKUA

ZATOZ IGANDEETAKO LOTORA! ASTE HONETAN 10.000PTAKO SARIA

Hezurak astintzeko lekuriak proposena

Uribarri Etorbidea 8

podiuma

Pako Carretero, karateka

Pako Carretero duela 12 urte hasi zen karate ikasten. Gerriko beltza, hirugarren "dan" a du. Bere palmaresa bikaina da, besteak beste, 1983an Espainiako txapeldu-norde suertatu zen. Hainbat urtetan Kiroldegian disziplina hau irakasten ibili ondoren, 1986an bere gimnasia zabaldu zuen, eta txapelketa utzi.

"Saioa" gimnasioan mantenu-gimnasia eta karate irakasten ditu. Karatea duela urte batzuk izan zuen sekulako "boom" a, eta hau jeitsi ondoren, gaur egun bere gimnasia 150 lagunek praktikatzan dute. Jeitsiera honi esplikazioa bilatzerakoan, esan behar da lehiaketa mailan oso zaila dela praktikatzea, eta monitoreei gero eta gehiago eskatzen zaie irakatsi ahal izateko: teknikak, pedadogia eta psikologiaren ezagupena, etab. Lehen, berriz, gerriko beltza zuen edozein mutil hasi zitekeen karateko klaseak ematen. Beste arte martzial mota batzu ere hedatu dira, horra hor taekwondoren kasua, esaterako. Dena dela, "oraindik karateak indarrean jarraitzen du, eta , haurrei ere asko gustatzen zaie".

Pakok, karatea definitzerakoan, hiru sail bereizten ditu, "karatea filosofia, hezkuntz fisikoa eta arte martzial bezala interpreta daiteke-



Karatea ez da kirol biolentoa

na. Hemen hirurak lantzen saiatzen gara, filosofia bezala garatzea gure gizartean zaila suertatu arren". Bestalde, "Bruce Lee"ren pelikulen eraginaz zegoen agresibitateari lotutako kirol honekiko irudi faltsua dagoeneko ez dela existitzen uste du, "karatea jende paketsuaren kirola da, eta jendeak gero eta gehiago ulertzen du hau".

Bere gimnasiotik, batz bestea, ehun bat lagun pasatzen da egunero. Gure gizartean gimnasioarekiko zaletasuna gero eta handiagoa dela ukazina da, "bai, baina hau eztabilizatu egingo da. Dena uhinka doa, aerobicena pasatu ondoren, pesena etorri da; baina moda pasakorrak besterik ez dira".

Badirudi jendea konturatzen ari dela kirola beharrezkoa dela, "jendeak agresibitatea kanalizatu, eta hezkuntz fisikoaz jabetzeaz gain, harreman sozialak ezartzen ditu kirolaren bidez".

Iñigo Roldan, garaile Castellonen

Iñigo Roldan garaile suertatu zen Gipuzkoako selekzioarekin Castellonen. Lasterketa 60 km.takoa zen, eta helmugatik 20 km.etera Iñigok ihes egin zuen tropeletik. 47 ziklisten artean, bakarrik 30ek zeharkatu zuten helmuga. Ikusten denez, Alejandro Altuna taldeko gazte honen palmaresa garaipenez betetzen ari da.

Futbito txapelketa

Gazteri Batzordeak Koadrilen arteko Futbito Txapelketa antolatzen asmoa dauka. Hau dela eta, datorren hilaren 5ean, 7etan, Monterroneko Hitzaldi Aretoan izango den bilerara joateko deia luzatzen zaie koadri-leei.

eskubaloia: larunbatean kirolde

gian: 4etan, gazte-femeninoa: Arrasate Kirolak - Aloña Mendi; 5etan, kadete-maskulinoa: Arrasate K.-Jauja Mutriku; 6,30etan, 2. Dibisioa: Arrasate Kirolak - Caja Alava.

rugbya: igandean Iturripen, 4,30etan: Arrasate Kirolak - Durango R.T. (igoera fasea).

futbola: Igandean: 11etan, neskak: Okendo Kirolak - Dunboa. 5etan: Mondra - Amorebieta.

ziklismo: Antzuolan, igandean 10etan Uzarragara igoera, jubenilentzat.

Denborapasen soluzioak

Aritgrama
(((5 2)+8):9+6) 4+4+3+1=40
Nahaste-borraste
"Axular"



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

MARENAZA
Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkaia, 1 Tfnoa: 79 08 07
Aretxabaleta

Murala: arte gizarteratua



"Fagor Industrial"eko jantokiko murala. (T. Besa)

1929ko krisialdiaren ondoren, "Federal Arts Projects" delakoa sortzen da Estatu Batuetan. Honen asmoa, langabezian zeuden amerikar artista ugarietan lan bat eskeintzea da, eraikuntza publikoak muralekin apaindu eta antzerako xedetara bideratuak zihozten egitazmoen bidez. Honekin, ez bakarrik amerikar guztietan bertan egiten zen arte-lana zabaltzea (ordurarte indar gutxiko europar "munstro"ek

menperatzen zuten merkatu artistiko hartan), beste arrakasta garrantzitsu batzu eskuratzea, hots, artearen gizarteratzea (hau da, edonork dasta eta goza ahal izatea) eta lan inguruaren duintzea ere lortu zuten, egitasmo hauek lantegiak edertzeraz jotzen bait zuten batipat.

Propaganda edo helburu soziala beraz (segun eta nondik hartzen den) erabaki zuen Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak antzerako bide bati ekitea.

Arrasaten, bestalde, badaukagu inizatiba pribatuak eginiko murala, Roneokoa, hain zuzen ere. Honetan, perspektiba bikain batzu, sasiarkitekturen erabilpena eta margo leunak tarteko, orma desolatuok asko irabazi zuten.

Beste lan interesgarria, kasu honetan Eusko Jaurlaritzak subentzionatu gabekoa, Tomas Besa

atxabaltarrak "Fagor Industrial"eko jantokian bururatukoa dugu. Mural honi buruz, bi ohar aipagai: bata, formari dagokionez, bi estilo ezberdin kontrajartzeko erak, txundi egiten gaituena (impresionista alde batetik, kaleko gaiak tajutzeko darabilena eta paisaia abstraktoak bestetik); bi estilo, beraz, margo bakarrean. Beste ohar aipagarria, mural hauek, hain aurrerakoiak itxuraz, inguru aproposa ez dirudien lantegi batetako jantokian hain maitasuki egokitu izanarena. Egia esan, Portaloia edota hildo bereko gai kaltetarrek, aldaketa hauek hobeki irensten lagunduko zuten, ziur aski.

Oraingoz, bada, guztiak pozik. Eta hala, bide batez, kultura hedatzeraz laguntzen duten ideia hauen aurrean euskaldunok izan dezakegun heldutasun artistikoa agerian geratzen da. Jakina, mendia ez badoakio Mahomari...

Mikel Arregi

SEAT Udalaitz, S. A.



GARANTIAK SENDOENA!

Tailerra: Musakola Auzoa, z/g

Erakusketa: Zarugalde, 35 behe

Tfnoak: 79 21 25 - 79 18 80

ARRASATE

" PAL "

burdindegia, brikolage
eta
tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa 79 31 99



JOSE MARIA ARZAMENDI Doktorea

*Kirurgia orokor eta liseri-aparatukoa
Kontsulta astelen eta ostegunetan,
5,30tan hasita aurrez ordua eskaturik.*

Aseguroak Igualetoia, Lagun Aro, Mediki kirurgikoa

Biteri Etorbidea, 1 - 11 ARRASATE

**arrasate
press
astero zuekin**

Autoen finantziaketa: Hogerlekoak lau pezetatan?

Autoen merkatuan marka ezberdinen arteko lehia gogortzen ari dela gauza nabaria da. Europar autoek hemengo merkatuan sartzeko gero eta oztopo gutxiago dutenez, lehiakideak ugaldtu egin dira eta lehia gogortu. Auto-eroslearen aukera ugaldtu egin da eta informazioa ere bai, horrela saltzaileen arteko borroka indartu delarik.

Lehia honetan, publizitatea da erabiltzen den tresnarik garrantzitsuena, ia bakarra. Tebistatan eta aldizkarietan, autoen publizitatea elegantea da, polita, irudi sofistikatuz egina. Egunkarietan, berriz, iragarkiak oso zuzenak dira, abantaila konkretuei buruzkoak, eta gehiengotan autoaren prezioari edo finantziaketari lotuak. Eta egia esan, sekulako eskaintzak ikusi ahal izan ditugu aspalditxo honetan: interesik gabe,

edo interes oso txikiekin, edo hainbat hilabetetan ordaindu gabe, edo... Horrelakotan, nahitaez, errezeloa sortzen da. Hogerlekoak lau pezetatan ematen ote dituzte?

Kezka hori uxatzeko, oso zaila da eskaintzen arteko konparaketa serio samarra egitea, hain dira ezberdinak eta bariatuak eskaintza horiek. Baina badago datu baliagarri bat: UTB edo urteko tasa baliokidea, paperetan TAE edo "tasa anual equivalente" moduan azaltzen dena.


UTBa indize matematiko bat besterik ez da, baina beronen balioa Espainiako Bankuak legez ezarritakoa izatean datza. Kontsumitzaileen elkarteek finantzetxeekin maileguen interesei buruz duten auzia dela-ta, derrigorrezko bihurtu da UTBren iragarpena finantz eragiketa guztietan, autoen finantzaketa barne.

Honen arabera, autoetxeek eskaintako finantzaketak %10etik %20ra bitartean daude, eta sarritan tasa merkeenak lehen urtean bakarrik ametitzen dituzte. Dena den, planaren zehaztasunen artean urte bakoitzeko UTBa eskatuz gero, finantzaketaaren prezioa atera ahal izango dugu eta beste eskaintzekin konparatu.

Ez da ahaztu behar, noski, auto-saltzaileak zenbait abantaila ere eman dezakeela, hala nola, auto zaharra gehiago ordaindu, edo hainbat gehigarri debalde eman. Guzti hori ere gogoan eduki beharrekoa, kontuak egiterakoan.

Beraz, arkatza zorroztu eta UTBa erabili. Inon ez bait dute hogierlekorik lau pezetatan ematen.

Mikel Intxausti



MOTOR

PEUGEOT-TALBOT
kontzesionarioan



P-405 DIESEL eta TURBO-DIESEL INTERCOOLER BERRIA

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g Tfnoa: 79 94 11
Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75

Irakaskuntza euskaraz norentzat? Guztiontzat

Haurrak eskoletan matrikulatzeko epeak ireki direla eta, hainbat informazio jasotzen ari gara Elkarte Autonomoan, Hezkuntza Sailak eskaintzan dituen IKASTEREDUEN abantailari buruz, A,B eta D ereduari buruz, hain zuzen.

Guk, gaurko artikulu honetan Euskaraz Ikastearen Abantailak aipatu nahi dutugu, baita guraso bezala eduki dezakegun eragina ere.

Euskaraz ikastearen abantailak:

... Hizkuntza bietan (euskara eta gaztelaniaz) trebetasun berdina lortzeko, Euskaraz ikastea da dagoen bide bakarra.

... Eskolak lehentasuna eman behar dio gizaratean indar gutxien duen hizkuntzari (hizkuntza minoritarioari), hau da, euskarari.

Kontutan izan behar dugu gizarateak ematen diola, hizkuntza maioritarioa -gaztelania- erabiltzeko eta garatzeko aukera.

... Bigarren hizkuntzaren desarroiloak ez dio etxeko-hizkuntzaren desarroiloari kalterik egiten, mesede baino: Hizkuntza baten lortzen diren trebetasunek, beste bigarren, hirugarren,... hizkuntza bat ikasteko bidea arindu egiten dutelako.

Gurasoentzat oso garrantzizkoa da Ikasteredua ongi aukeratzea, baina gurasoen lana ez da hemen amaintzen. Familiaren eragin "positiboa" ala "negatiboa", Ikasteredua baino eragingarriagoa izan daiteke haurrarentan.

Eta nola jokatu etxean eragina positiboa izateko?

— Etxeko hizkuntza euskara bada:

... bere erabilera ziurtatuz gai guztietan

... hizkuntz eredu onak emanaz. Honek, zenbait kasutan, gurasoen euskara aberastea suposatuko luke.

... hizkuntza aberasteko gizarateak eskaintzen dituen baliabideak erabiliz: ETB1, euskaraz den irratia, prentsa,...

— Etxeko hizkuntza gaztelania:

... etxeko hizkuntza desarrolatuz: gaztelaniaren aberastasuna euskararen mesederako izango bait da.

... euskara erabiltzeko aukera emanaz, eta erabilera bultzatuz: udalekuak, herrian antolatzen diren ekintzetan parte hartzea,...

... euskararekiko jarrera positiboak agertuz haurren aurrean, bai hitzez eta bai egitez: euskara ikasiz,...

Klarion taldea

PRONOVIAS DOCHY



ezkontzak

Independencia 20
GASTEIZ

Eroski Kontsumatzaileen Komitea Informazioa eta Formazioa

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan

Impi gozoak

Gosariak eta gozokiak

Zarugalde, 8
Tfnoa: 79 63 34

TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak
pintxo eta mokau
gozoak

itesa

- * Pisu eta lokalak
- * Orube eta lursailak
- * Balorapenak

Gure aholkularitza,
gestio eta
salmenta-zerbitzuak
eskaintzen
dizkizugu

Maalako errebala, 6. 1
ARRASATE

Memesa

Arrasate
79 42 22

Agirre Miota Gestoria

Zerga deklarazioak

Erdiko kale 28, 2.
Tfnoa: 79 34 33

Gure jateko ohiturak ezagutzen (III)

Okela maiz jaten dugula garbi dago, baita gustora jan ere gainera, dietari kalitatea ematen dion janariztat hartzen dugu eta askotan okela jan ez badugu ez dugula behar bezala bazkaldu iruditzen zaigu. Proteinak beharrezkoak digutu ehun-sortzailak bait dira, eta hauek okelaren bitartez lortzen ditugu; baina proteinek batera, koipea ere hartzen dugu okelarekin eta honen neurria gehitzea kaltegarria gerta daiteke osasunerako.

Gure herrian egiten den kontsumoa honako hau da, bestetan aipatutako inkestan agertzen denez:

Txekorra (zuria) %79

Oilaskoa %100

Ehiza %13

Behia (gorria) %38

Zerriak %41

Bildoskia %31

Pertsona bakoitzak 700 gramo

okela jaten du astero, beraz ia egunero jaten dela dirudi (ehunetatik %80an).

Oilaskoa bere azal eta guzti %41ek du jateko ohitura eta %3k okelak agerian duen gantza ere bai.

Barrenkiak ere nahiko preziatuak dira, %33ak du hau jateko ohitura.

Hesteki edo enbutidoak berriz, neurri honetan: urdai azpiko egosia (York) eta mortadela, pertsonen %80ak; txorizoa, saltxitxoia eta txistorra %87ak, urdai azpiko koipetsua %42ak eta urdai azpiko gihartsua %24ek.

Baina okelaren elikapen-balioa zein den jakin behar dugu: lehen esan dugunez, balio biologiko handiko proteinak ditu %15-20 bitartean, ur-edukia %70ekoa da gutxi gora behera, koipe-kantitatea aldatzen da eta animalia moeta eta beronen egoerarekin badu zerikusirik,

kontutan hartu behar delarik ez bakarrik agerian dagoena edo ikusten duguna, giharre artean tartekaturik ere bai bait dago. Zerriak da koipetsuena, baita berretatik ateratako produktuak ere, hestekiek %20-30a koipea dutelarik; oilaskoak, berriz, %5a du, okeletan gutxienetakoa.

Burdina eta fosforoa gatz mineralen gehien agertzen direnak ditugu eta B multzoko bitaminen iturri ona dela esan genezake, tiaminarena bereziki.

Hala ere, okelatan bakarrik oinarritutako elikadura ez da egokia izango, behar ditugun elikagai guztiak ez bait ditu, eta beste janariekin osatu behar dugu geure dieta.

Ez dugu ahaztu behar proteina lortzeko beste janari batzuk ere baditugula eta okelaren kontsumoa jaistea ez dela kaltegarria izango; alderantziz, esango nuke.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*

inpresio ona!

IK3

**inprimategi eta
autoedizio zerbitzuak**

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

BIZKAI JATETXEA

Bizkai jatetxea ireki berria!

UDALA AUZOA

ARRASATE. Tfnoa 79 22 15

Parques y Jardines S. A.

PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA
LORAZANTZAKO MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE - BIRSORKUNTZA HIDROEREINTZAZ

Casa - Torre kalea - Tfnoa (94) 6819082 ABADIÑO (BIZKAIA)

AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECElko kidea

Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Klaseak
Itzulpenak
Udako ikastaroak
Bidaiak
Elkartrukeak
Udalekuak
Prestakuntza

*"Hizkuntza bat gehiago,
muga bat gutxiago"*

Loramendi 7, Tfnoa: 79 01 32

Zubizarreta Tailerrak



Gipuzkoa Etorbidea 22,
Tfnoa 79 15 65

IBARRA Garajea S.A



garajea
Automobil-
konponketa
Garabi zerbitzua

EBRO
NISSAN

Azeri kalea, 5 Tfnoa: 79 12 61
ARRASATE

IOSU

argazki denda


*ARGAZKILARITZARAKO
MATERIALA
*ERREPORTAIK
*BISUTERIA

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

Gorka
ILEAPAINDEGI
MIXTOA



Bainetxe kalea, 10-behea. Tfnoak: 799680 eta 796327
ARETXABAETA



ZENBAKI

Gaiak: Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

BASABE INDUSTRIALDEA
ARETXABAETA (Gipuzkoa)
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

ETXEBIZITZAK

- Garaje individuala salgai Udala enparantzan. Tfnoa: 79 90 55.
- 37m²ko merkataritzako lokala salgai. Kale aldea,13. Tfnoa: 79 83 50.
- Merkataritzako lokala esku aldatu nahi da Uribe Auzoan. Tfnoa: 79 49 88 Prezioa elkarren artean jartzeko.
- Culleran (Balentzia) pisua errentan eman nahi da urte osoan zehar. Tfnoa: 79 71 94
- Pisua salgai. Aldai gain Tfnoa: 79 71 93
- Emakume gazte batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 58 61.
- R5-TS autoa (SS-I matrikula) salgai.
- Merkataritzako lokala saldu edo errentan eman nahi da. 37m²; Kalealdea, 13. Tfnoa. 798350
- Pisua salgai altzari eta guzti, Makatzenan (5-4^a A) Tfnoa. 799357
- Bikote batek, lehen baitlehen pisu bat errentan hartu nahi du. Tfnoa.:79 70 15. Inaki.
- Lehen bait lehen pisu bat errentan hartu nahi dugu Arrasaten, merkea bada hobe. Tfnoa 79 09 00. Lorea.
- Paper-jostailu denda esku aldatu nahi da Uribe--Auzoan. Interesatuak dei 79 47 85 telefonora.
- Garaje individuala salgai. Tfnoa: 798308

- Oñatiko Salluente Auzoan etxebizitza salgai, oraindik estreinatu gabea. Sukaldea, bi bainu, hiru logela, egongela-jantokia, garajea eta ganbara. Tfnoa: 792292-782881
- Etxebizitza salgai. Andaluzia kalea, 1. Tfnoa: 792677
- Arima Zuri Plazan 185 m²ko lokala salgai. Akademia edo bulegotarako egokitua, kalefazioarako instalazioa duena. Tfnoa: 790132-796554

LANA

- Neska edo mutila behar da gozotegi batean, arratsaldetan lan egiteko, larunbat eta igandetan ere bai. Tfnoa. 79 64 50
- Irakasleak behar dira BBBeta UBirako (Matematika eta Fisika) Ingenieritzarako (Kalkulua, Algebra eta Fisika) Interesatuak dei 76 40 33 telefonora
- Andre euskaldunak arratsaldez etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa.79 40 53 (Maite)
- Emakumea behar da hilabete gutxiko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko, ahal balitz euskalduna. Berehala hasi eta bi urtetarako luzatu daitekeelarik. Interesatuak dei 79 66 38 telefonora. 6 terdietatik 7etara.
- Irakasleak behar dira. BBB eta UBirako (Matematika eta Fisika) eta Ingenieritzarako (Kalkulua, Algebra eta Fisika).Interesatuak dei 79 40 33 telefonora.

- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta umeak ikastolara eramateko. Egun erdi. Dei 79 88 83.
- Erreminta-zorroztaila behar du Eibar-ko enpresa batek. Interesatuak dei 713227-713789 telefonoetara.
- Makina-erremintak saltzeko pertsona behar du Eibarko enpresa batek. Interesatuak Eibarko 286 postakutxara bidali behar dute beren curriculum.
- Eibarko enpresa batek idazkari bat behar du. Interesatuak Eibarko 286 postakutxara bidali behar dute beren curriculum.

SALEROSKETAK

- 10 abiadura eta 54 neurrizko "Corbeta" txirringa salgai dago. Tfnoa 79 58 29.
- Collie arrazako txakur emea salgai. Prezioa elkarren artean jartzekoa. Tfnoa: 798658
- R-6a erosi nahi dut. Dei ezazue ofizina orduetan 797164 tfnora. Goio
- Renault 11 autoa (SS-2601 T matrikula) salgai. Etxeostea 18, 31. Interesatuak dei 796751 (etxea) edo 794700 (lana) telefonoetara. Gerardo.
- Egunero Gasteizera joanetorria egiteko kotxea behar dut. Gasolina gastoak erdibana. Dei eguardian 79 35 47 tfnora. Asun



ARRASATEN HILDAKOAK

- Francisco Larrinaga Maguregi, 66, Martxoaren 15
- Angela Bastida Mondragón, 87, Martxoaren 15
- Manuela Conde Rodriguez, 95, Martxoaren 17
- Félix Araistegi Irizar, 79, Martxoaren 18
- Eutimio Sedano Parte, 67, Martxoaren 19
- Angela Martin Jimenez, 2 hilabete, Martxoaren 22
- Antonio Moral Mena, 79, Martxoaren 23
- María Legazpia Arregi, 83, Martxoaren 28

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Zeharkale estalla 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik



“...pastak erosi pastelerixan, pitxer batzuk eskatu, eta Kontzeziñora...”

Gazte denporako jai eta dantzak?

Dolores eta Anizeto: Jaixetan Atxabaletako jaixek zien inguruko famauek, beste herrixek urrin eitten zien-ta. Mundrauen be jai onak San Juanetan eta Santo Tomasetan eta musikie domekero. Musika ona, ez txantxie. Orduen dantza-zaletasun haundixe auen.

Dol.: Bañe edozeñeaz ez gauen dantzan eitten, e! Gustokue ez zanen bat ikusi ezker, “hori neuana jaton..., etxaten ba gustetan”. Paso-doblioi arinddu eta alde plazan beste aldera.

Ani.: Bai, bañe kalabazak emoten zittuenak apuntau eitten zittuen.

Eta dantza ostekuek?

Dol. eta Ani.: Musikie bostak xeirek aldera hasten zan. Pieza pare bat jo eta etxera afaitten. Gero afalostien beste lau-bost pieza.

Dol.: Uran, honeik, batzuk salantxuek izeten zien eta iturrirre erueten zinduen, Kontzeziñora. Pastak erosi pastelexan, pitxer

DOLORES ETA ANIZETO (2):
“Musika ona egoten zan hemen, ez txantxie”

ZAHARTZARUEN BE GAZTE KONSERBETAKO

“Ez abusau, ez jaten, ez eraten eta ez juergetan”
Dolores eta Anizeto

batzuk eskatu eta Kontzeziñora..., ure eraten, Bañe orduen be txintxo... kuadrillan jueten gitzen eta!

Hala eitten zien nobixo edo erdi-nobixo.

Gero 9etan aramaittekue eta danak etxera.

Orduko jente famaue?

Dol. eta Ani.: Jente ona, biergiñe, egonda hemen; aberats gutxi, beraneante dirudun gutxi. Mendiana eta Adan de Yarza etorten zien. Monterroiekuek be bai, noxien behin, Madrilletik.

Monterroiekuek familixa bat ekarri auien hona etxie zainketako eta hareik txurrerixie ipini auien. Pedro Txurrero popularra izen zan probintzia osuen.

Eta zeueik nora beraniuen?

Ani.: Guk hasixeran baka-ziñorik pe ez gauen izeten, Gero 9 egun kontauek. Aberatsak Donostiera jueten zien eta bestiok Debara.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

Errebiro etzan kazari makala. Etzeuan lekutik pe mordua ekartze eban. Lagunartian, bestiak txistik eitteke, han ziharduan ur bitsetan:

— Gaztandolako pagadi gaifian, joan dan pase sasoiari, zer zuan ha! Goiz baten berrogetahiru uso bota najittuan. Ordu erdi inguruan izugarrizko uso bandadak pasau eta pasau gelditzeke. Ha zuan amama. Ama-saik hartzeke jardun najuan: danba! batera, danba! bestera, danba! albo-ra, danba! harutzagora...

— Zera txotxo? Danba, danba eta danba... zelan baiña? Eta eskupetia kargau, noiz? —preguntau zotsan lagun batek.

Eta Errebirok:

— Zer uste dok pa hik? Hainbeste uso zetorrela kargatzeko astirik baneukala, ala?

■ ■ ■ ■ ■

Satorra-Zarra be domekero joaten zan kazara baiña harek ekarrirako txoririk etzeban iflok ikusten, Guardianeko tabernan ero izan ezik. Aspaldixan zebillen bere andria pentsamentu okerretan, Ero zuzen-tan, nork daki.

— Etxakixat nik kaza aitzakixan zer darabillan. Domekero basora eta ifloiz eztok ezer ekartzen. Kazarixon artian sistima zarra dok: “txakurrai azurrak eta andriai gizurrak”.

Hurrengo domeka illuntzian, han azaldu zan Satorra-Zarra txori sorta eder batekin, barrez barrez. Sukaldeko mahi gaifera jaurtixaz:

— Autsonaz, eta esan hurrenguan be ezer eztotela ekartzen.

— Eta honek heuk hil dittuk ala?

— Ez, Mateo Txistuk hilgo jittu-nan.

— Hik? tira tira, gizurrik ezik esan. Hik zela hilgo hittuan ba, eskupetia etxian ahaztuta laga dok eta.

— Anda karajo! Banenguan ba ni... nik bai igarri tirua botatzera-kuan esku artian zerbait falta neba-na.


Juan Martin Elexpuru



URONDO elektrizitatea.

Nafarroako etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak




JESUS ELKORO

BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886

ARRASATE



Garagartzako artea

Garagartzako artea Garagartzatik Gesalibarrerako bidean zegoen

zuhaitz ospetsu hau orain dela hogeitatu urte (1969-IX-14an) bota zuten haizeak. Hemeretzi metro zituen luzeran, hogeitatu metro zabaltzen zen adaburuko diametroa eta, lurretik metro t'erdira, bost metroko zabalera zeukan enborrak. Inguruetako arbolarik zaharrenetakoa genuen arte trinko honek hiru-lau mende omen zituen.



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako

klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

Goiztiri

Opariak

Maalako Errebala, 11
Tfnoa 79 87 43



HAURTOKO
ARANBURU

Arrasate Pasealekua, 4
79 14 90 ARRASATE


**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40,
Tfnoa: 79 13 78 ARRASATE

**URIBE-ETXEBARRIA
ARROZTEGIA**

*Obra-erakuntza
Aroztegia mekanikoa*

Araba Etorbidea z/g Tfnoa: 79 15 71



**FAMILI
ETA GIZARTE-
HEZKETARAKO
ZENTRUAK**

***KLASE PRAKTIKOAK SUKAL-
DARITZA ETA GOZOGINTZA.**

Egunak: Apirilaren 6an eta 7an
Ordua: Arratsaldeko 3,30etan

***HOSTOREA ETA BERE
APLIKAZIOAK PLATER GAZI
ETA GOZOTAN**

Egunak: 13 eta 14
*Saltsa hotz eta beroak, Saltsa
amerikarra, Saltsa larrosa, Saltsa
espainarra, Saltsa holandarra,
Ehiza saltsa etab., Menier saltsa*

Tokia mugatua, beraz izena alde
aurretik eman beharko da.

***GIMNASIA**

Astelehena, Asteazkena, Osteguna.
10,30 etatik 11,30etara

APIRILA-
MAIATZARAKO
ESKAINNTZA

**UDABERRIKO
OPORRAK**

• BENIDORM

H. BRITANIA**	15 egun	25.675 pta-tik aurrera
H. BRITANIA**	28 egun	46.325 pta-tik aurrera
H. ROYAL***	15 egun	30.225 pta-tik aurrera
H. ROYAL***	28 egun	55.775 pta-tik aurrera

• CANARIAS

APARTAMENTUA	8 egun	37.800 pta-tik aurrera
HOTELA***	8 egun pentsio erdia	46.200 pta-tik aurrera
APARTAMENTUA	15 egun	47.075 pta-tik aurrera
HOTELA***	15 egun pentsio erdia	64.050 pta-tik aurrera

• ALMUNECAR

HOTELA***	pentsio osoa eguneko eta pertsonako	1.700 pta-tik aurrera
-----------	--	-----------------------

• FORMIGAL. Aste Burua.

NIEVE-SOL H**	pentsio erdia + erremontea + autobusa irteera arrasatetik	7.700 pta-tik aurrera
---------------	--	-----------------------

VIAJES

EROSKI
BIDAIAK

Maestro Arano (portalón), 8
20500 Mondragón Telf. (943) 79 99 22 - 32



**Almacen del Mueble
Mondragon**


Prezio paregabeak
Zatozte

Gipuzkoa Etorbidea. 6 Lehena behea Legarre

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE



LAMIAK

Arrasate Pasealekua, 2, behea
Tfnoa: 79 72 63

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

UGARTE

industri hornidurak


Arrasate pasalekua
Tfnoa: 79 73 00-8396
Telefax: 793412

Hiri postala

Izkina horretan, arretaz begiratu gero, hiru zigarrokin soma daitezke. Lehena, espaloia erdian datza. Bigarrenak, eskaparate hurbilen dagoenak, hortz seinaleak erakusten ditu eta badirudi, ia filtro gorria arte erre eta gero, amorrus-edo zapaldua izan dela. Hirugarrena, berriz, kalada pare bat emanda, lurrean soseguz erre dela ematen du eta tabakoak, alferrik errauts bihurturik, fitari erantsita dirau.

Pixka bat harantzago, trafiko-seinale batetik zintzilik dagoen paperontzian, krabelin erramu bat ikusten da, opari-paper argiz erdi estalia.

Bestaldeko espaloitik, txiro zahar xeble batek kalea zeharkatzen du eta laranja azala eta publizitate-orri pusketen artean dautzan loreak salbatuz, hiru drabelin-buru moztu eta zigarrokinei lore bana eskaintzen die, ardura guztiaz eta bizkarra nekez makurturik. Gainerako lore-sorta eskutan daramala, atxintxiketan hasi eta ez dio lasterketari utziko hirierdiko parkera heldu artean. Han, erretzen dagoen neskari zigarro errubio bat eskatu eta, haren orde, krabelinak oparitu dizkio.



Izkina horren pare-pareko kafetegi dotorean, mar-morezko mahai baten eserita, mutil batek, besterik ezean, loradendako fakturaren atzekaldean ilusioz beteriko lerro hauek idazten ditu.

G.M.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa - t/797658 Arrasate

empresa
bazkariak
eta
famili bilerak

■ **Publizitatea ETB1ean.** Oraindik ez dugu Euskal Telebistaren lehen kanala bere osoan euskalduna izatea lortu. Zenbat bider ez zaigu gertatzen edozein tele saioren erdian erdal publizitatea entzun behar izatea? Askotan, zoritxarrez.

Ez dut garbi ikusten zeren edo noren izenean sartzen duten publizitatea gaztelaniaz euskal katean. Euskal ikuslegoari iruzur egiten zaio eta ETB1i mesederik ez. Dena diru kontua bada, guk orrialde hauetan besterik erakusten dugu, publizitatea euskara hutsean egin daitekeela eta ondo egin ere, alegia. Gauzak garbi daudenean eta bitarteko informatiboak balio badu—ez da apaltasun-eza, irakurle eta iragarleok horixe adierazten bait diguzue zeuen etengabeko publizitate eta harpidetza-eskariekin— iragarleak ez dio muzinik egiten euskaraz iragartzeari, ezta gutxiagorik ere.

Publizitatea “media”ren zati banaezina bihurtzen ari den honetan, geuk ere geure hizkuntzan jasotzera jo behar dugu, horrekin batera ikusgarria, informagarria, onuragarria, kalitatezkoa den ala ez ikusiz. Azken aldi honetan euskal iragarkien kopurua hazi egin dela iruditu zait: ONCE, Seat Ibiza, Volkswagen... Baten bat aipatzekotan, azken honen Golf-arena aipatuko nuke. Bizia, dotorea eta primeran bikoiztua.

■ **Paperezko ahotsak.** Ia mundu guztiko irrati onek egiten dute, programazio biziagoa eta distiratsuagoa lortu nahi dutenean. Astean behin edo, bizpahiru minututako tartea eskaintzen zaie hainbat idazleri, nahi dutenaz berba egin dezaten. Idazlea ondo moldatzen bada, primeran funtzionatzen du. Asmatzen ez badu, berriz, entzuleak ez du astirik beste emisoraren bila hasteko.

Hiru bat aldiz entzun dut “Goizean behin” magazinaren barruan, goizeko 10,25ak inguruan, Euskadi Irratiaren “Paperezko ahotsak” tartea, behin Felipe Juaristiri eta Pello Esnali birritan. Bai azkoitiarrak zein zarauztarrak, oso desberdinak izanda ere, ezin hobeto bete zuten beren egitekoa, entzuleon atseginerako.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Laino guztien azpitik,** astelehenean, hilak 3; 22,20ean. Aste honetan gonbidatu hauek izango dira programan: Koldo Ortega eta Lino Akesolo, Adituen Hiztegi baten egileak; Imanol Bolinaga, Eusko Jaurlaritzaren Turismoko Sailburuordea eta Arantza Urretavizcaya idazlea. Hauetaz gain, Dona Haytowerrek abestuko du.

■ **Euskadiko Itzulia.** Apirilaren 3etatik 7rarte. Egunero 4ak inguru, etaparen bukaera zuzenean ETB1ean; eta 9etan, egunean gertatukoaren laburpena. Zuzeneko komentarioez Pedro M^a Goikoetxea eta Martin Agirre arduratuko dira; laburpenez, berriz, Gerado Puente eta Xabier de la Fuente. 50 pertsona desplazaturik dago lasterketaren berri emateko.

■ **Iguanaren gaua** (“Night of the iguana”, 1964). Larunbatean, hilak 1, 22,10ean. Zuzendaria: John Huston. Antzezleak: Richard Burton, Ava Gardner, Deborah Kerr. T. Lawrence Shanon reberendoa bere komunitateko partaideen itxurakeria gogorki kritikatu ondoren, haiengandik urrunduta eta Mexikorantz abiatzen da. Han, gidari turistiko eran egingo du lan hiru emakume bakarti ezagutuz.

bideoak



The Grey Fox (Azeri Grisa). Bill Manner, “Azeri Grisa”, S. Quintineko ospetxean 33urte egin ondoren, eta 60 zituela, dilijentziak utzi eta trenak erasotzeari ekin zion mende horren hasierako Ipar Amerikar Sortaldean.

R. Farnsworth beteranoen interpretazioa zoragarria da.

Atseginez ikusteko filme kanadiarra. On dagizuela.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasi-
koa)





Azteazkena


4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako graba-
ketak).

Aritgrama

4	6		1	→ 40
	5	4	3	
6	8	4		
3	2	9	6	
	1	5	7	



Nahaste-borraste

Lehenik alboko definizioei egokituko zaizkion hitzak asmatu behar dituzu, eta, ondoren, laukietan gelditzen diren hizkiak behar bezala ordenatuz, XVII. mendeko euskal idazle baten izena agertuko zaizu.

Soluzioak: 19. orrialdean.

P. Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Aurkitu duzun lagun berri honek arazo batzu ekarriko dizkizu. Nahiz eta ez eman oso ongi konponduko zara berarekin, ez moztu, bada, harreman hori azkenean behar-ko duzu eta.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Indarrez beteta sentitzen zara baina ez ausartarena egin, alarma hutsa da, besterik ez. Gorde itzazu badaezpada indar horiek momentu egokian ateratzeko.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Ingurukoekin harremanak, ikasketak, lana etab. dena arazo haundi bihurtzen da. Horren kontra borrokatu beharrean aurkituko zara, baina lasai egon lagun mordo bat dituzu eta ez zaituzte bakarrik utziko.



CANCER
Ekainaren 22etik
Uztailaren 22ra

Jokuan gehiago inbertitu beharko zenuke. Beste arloetan izarra baduzu, zergatik ez jokuan? Saia zaituz ea eskuzabalago bihurtzen zaren.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Ez zaude batere konforme hartu duzun erabakiarekin. Damutzearekin ez duzu ezer egiten. Dena den asko ikasi duzu urrengorako, baina praktikan jarri.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Ez kezkatu lanagatik, ez zaitu loak galdu behar. Dauzkazun lagunek asko lagunduko dizute. Datorren astean aldaketaren bat nabarituriko duzu.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Datorren astetik gauzak beste modu batean ikusiko dituzu. Martxosoagoa sentituko zara, asperraldiak ahaztuko zaizkizu. Lanean ere nekaezina ibiliko zara.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Nahiz eta ez gustatu, etxean egotea komeni zaizu. Etxekoek zure konpainia behar dute, eta zuk mundu berri bat ezagutuko duzu, agian.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Beti kexatzen, beti alde txarrak ikusten. Horrela jarraitzen baduzu, bakarrik gertatzeaz gainera gaixotu egingo zara. Aldatu irudia eta anima zaituz, bizitza ederra da eta.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Denbora libre beharrean zaude. Aste Santuko oporrak berehala pasatu dira eta izan duzun atsedendia ez da nahikoa izan. Ez egin lan haundia, ez zaizu komeni eta.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Lagun berriak ezagutzeko aukera izango duzu. Aprobetxa ezazu egoera, azken bolada honetan bakartasuna zure ingurutik ibili da eta dakizunez ez da ona gizona bakarrik egotea.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Esfortuz txiki bat eginda eta lagunak laguntzaz, nahi duzuna lortuko duzu. Bestalde kontuz belaeanean sentitzen duzun min horrekin, ez da txorakeria bat.

ez dakizula

Zenbat biztanle dituen Arrasatek?

Egin berri da Udaletxean biztanlegoaren Udal-Erroldaren urteroko zuzenketa. Ikus ditzagun iaztik hona izan diren aldaketak:

1988ko Urtarrilaren leko datuz Arrasatek zuen biztanle-kopurua 26.231koa zen. Urte bete berandua-go kopuru hori 205 biztanletan jaitسي da, 26.016ko zifran geldituz.

Hasierako biztanle kopurua:
26.231

1988an izandako heriotzak -199
1988an izandako jaiotzak + 227
1988an herritik joan direnak -422
1988an herrira etorri direnak +188

Biztanle-kopurua 1989ko Urtarrilaren lean: 26.026

Joan direnetatik askok, dirudie-nez, Aretxabaleta eta Gasteizera egin dute alde, etxebizitza arazoa dela eta seguruenik. Itzuliko ote dira?

Zenbat euskara erabiltzen dugun Arrasaten?

Badakigu, jakin, arrasatear erdiak baino gehiagok badakiela euskaraz hitz egiten. Baina zenbatek erabiltzen du euskara eguneroko bizitzan?

Berriki egin den azterketa batek erakusten duenez, Arrasaten %85ek hitz egiten du erdaraz eta %15ak bakarrik euskaraz. Iazko datuak %88 eta %12 ziren hurrenez hurren. Hiru puntu irabazi ditu euskarak urte betean. Gero eta gehiago egitea gure esku dago.

Adinka, hauek dira euskararen erabilpenaren portzentaia:

Haurrak %22,25
Gazteak %12,71
Helduak %12,23
Zaharrak %28,1

Bestalde, erosketak egiterakoan erabiltzen da gehien euskara (%18,54) eta txikiteoan gutxien.

Zenbait eta nongo harpidedunak dituen Arrasate Pressek


Zabalkunde handia ari da lortzen ARRASATE PRESS, dagoeneko 2654 harpidedun ditu eta egunetik egunera handitzen doa kopurua.

Hona hemen nongoak diren edo, hobeto esanda, non bizi diren harpidedun guztiak:

Arrasate	2067
Deba Garaia	343
Gipuzkoa	94
Bizkaia	53
Araba	51
Nafarroa	14
Iparraldea	7
Espetxeak	14
Calella	1
Barcelona	3
Zaragoza	3
Madrid	1
Lannemezan	1
Mexiko	1
Hong-Kong	1
Guztira	2654

TALLERES OLA, S.L

OPELen kontzesionario ofiziala



Instalazioak:

Olabarrena Auzoa, z/g
Tfnoa: 76 33 44/45/46
BERGARA



Erakustokia:

Loramendi, 2
Tfnoa: 79 85 06
ARRASATE

OPEL 